

Santi Leone

## Nafarroa Bizirik

**B**

izitzan, orainera garamatzen osagaiak bilatu ohi ditugu iraganean. Bere oroitzapenen artean, txikitatik etxeekin jostetan aritzea gustatzen zitzaiola azpimarratuko du arkitektoak, eta aktoreak ikusi eta bereziki gozaturiko filmak ekarriko ditu gogora; euskaltzainak, apika, betidanik hitzekin izandako lilura nabarmenduko du. Aspaldikoa eta gaurkoa lotzen dituzten hari horiekin geure bizitzaren oihala ehuntzen baitugu, gure egoera, gaur egun garen hori, patuak markatutakoaren emaitza balitz bezala, zuzeneko ibilbide baten helmuga baitezpadakoa, eta ez kasualitatez josiriko bide malkartsu baten momentuzko hondar urratsa. Bizitzan hala egiten dugu, hala egin behar dugu noraezean, orainetik iragane-rantz hariak bota, gutaz geure buruari kontatzen diogun narrazioa harilkatu ahal izateko. Nolanahi den ere, apurtu egiten dira, batzuetan, gure nortasunari euskarri ematen dioten hari horiek, eta jitoan gelditzen gara, geure istorioari zentzua emateko zeri heldu ez dakigularik. Orduan, gutienez bi estrategia ditugu eskuar. Lehena zailena da: narrazioari uko egin eta geure burua irudikatze bertzelako moduak xerkatu. Bigarrena hauxe izan liteke: hutsean, narrazio idealizatu bat egiteari ekin: gertatu zitzaiguna gertatu izan ez balitzagu, gure gaurko egoera guziz desberdina izanen litzateke.

Bizitzan bezala, historian ere berdin jokatzeko ohi da. Iraganean, historialariek gaurko loratzearen haziak aurkitzen dituzte, zailtasun handirik gabe aurkitu ere. Ez beti, jakina. Nafarroan, fite, 2012an, 500 urte beteko dira Gaztelak konkistatu zuela. Ez da ospatzeko moduko datarik, naski gure arteko anitzek ospatuko duten arren. Gure historiaren hariak gertakari batek apurtu baditu, konkista izan zen; iduri du, beraz, mendeurrenak horren inguruko gogoeta zenbait egiteko parada eman beharko ligukeela. Galdera da, beti ere, nolako gogoetak egin nahi ditugun.



MIKEL SAINZ

Azken bolada honetan, oraina eta iragana uzartzeko hari bakarra Estatua dela erabaki da toki batzuetan eta, antza, hori da gure historiaren inguruko istorioari eta gure gaurko ekintza politikoari zentzua ematen ahal dion osagai bakarra. Historiari begira, arestian aipatu dudana bigarren estrategia hori da nagusi, Gaztelak konkistatu izan ez bagintu, gure egoera bertzelakoa izanen litzateke: gu independente, euskara bizirik, lurraldea baturik. Ez dakit, bada. Ez dut erranen aukera hori ezinezkoa denik; bai, aldiz, aukera posible bat bertzerik ez dela. Alegia, Nafarroak independentzia atxikia, neronek bertze bilakaera historikoak irudika ditzaket. Adibidez, agintariek euskara baztertu dutela imajinatzen ahal dut, eta gaur egun Belgikakoaren antzeko egoera dugula. Bertze adibide bat: XIX. mendean Espainian, Italian edo Alemanian bezala, mugimendu paniberikoa sortu da, penintsulako herri iberiko guziak batzera eramanez duena. Gertatu ez denaren hutsunea betetzeko hainbat istorio asmatzen ahal ditugu, are gehiago idealizazio zozoa baztertzeko badugu.

Duela aste batzuk, Urtzi Urrutikoetxeak Ibarretxeren galderez mozturiko labirintoak kritikatu zituen, eta Eskoziako nazionalismoa jarri zigun eredu. Aukeran, nik ere haren galdera (“Estatu independente gisa eratzea onartzen duzu?”) dut nahiago. Hala ere, profil eskaseko abertzale nafarra naizen aldetik, aitortu behar dut Estatuaren gaineko kalakarekin aspertzen hasia naizela. Ez baitut uste gure arazo guziak Estaturik ez izatetik heldu direnik, ezta Estatu bat izanda konponduko direnik ere. Are gehiago, ez dut uste Eskoziako Galdera Handi hura egitea (oraingoz) balio duenik, hemen erantzuna alde aurretik ezagutzen dugunean. 28an bildutakoek barkatuko didate baina momentu honetan, Nafarroa (Osoa edo bertzelakoa) bizirik izan dadin, bada, nire iduriko, gure estatalitatearen aldeko manifestuak sinatzea baino bide emankorragorik. ■

Profil eskaseko abertzale nafarra naizen aldetik, aitortu behar dut Estatuaren gaineko kalakarekin aspertzen hasia naizela. Ez baitut uste gure arazo guziak Estaturik ez izatetik heldu direnik, ezta Estatu bat izanda konponduko direnik ere